


# UDAL ORDEZKARITZA IKASTETXEKO ESKOLA KONTSEILUAN



Heztea eraikitzea da, pertsoneri euren gaitasunak garatzen laguntzea eta bide horretan gidatzea. Eskola-elkartea aldaketa eragile dela kontuan hartuta, parte-hartzea tresna boteretsua da zeregin horretan, bai hezkuntzaren kalitatea hobetzeko bai parte-hartzean oinarritutako demokrazia bultzatzeko.

Ikusmolde horretan oinarrituta, ingurua hezkuntza eragile pribilegiatua da. Hori dela eta, hiriak berariaz parte hartu behar du, hezkuntza ekintzak sustatuz eta erraztuz.

Hezkuntza legeriak –LODE (1985), EEPL (1993), LOE (2006)– hezkuntzaren esparruko eskumenak esleitzen dizkie udalei, hurbiltasunetik, baliabideak eskainiz eta herritarren beharrei erantzunez parte-hartzeko aukera izan dezaten.

Eskola Kontseilua da ikastetxeko parte-hartze organo nagusia eta, indarrean dagoen legeriarekin bat etorrita, Udaleko ordezkari batek parte hartzen du berorretan.

## UDALAREN PARTAIDETZA ESKOLA KONTSEILUAN

Eskola Kontseiluetan Udala ordezkatzeko duten pertsonak, legeak ezartzen dituen eginbeharrez gain; arazoak aztertzeko eta erabakiak hartzeko orduan kanpoko ikuspegi kualifikatua eskaini dezakete. Kanpoko ikuspegi hori ondorengo elementuetan oinarritzen da:

- Erantzukizun partekatua da hezkuntza.
- Hiria da pertsonen beren bizitzak garatzeko inguru naturala.
- Udala da administrazioari hurbilena.
- Hezkuntza sistemak errealitate hurbilekin lotuta egon behar du.
- Udalak hirian gertatzen den hezkuntza garapenean parte-hartzen du.

## UDALAK ESKOLA KONTSEILUAN DUEN ORDEZKARITZAREN EGITEKOAK

- Vitoria-Gasteizko Udalaren ordezkari instituzionala bete eta Eskola Kontseiluko kide bezala parte hartzea.
- Ikastetxearen eta Udalaren arteko bitartekari lana egin.
- Eskola-elkartek egiten dituen eskaerak bideratu.
- Ikastetxearen egoerari buruzko informazioa eman Udalari, horrek behar horien arabera egokitutako jarduketara planak diseina ditzan.
- Udal plangintzaren berri eman ikastetxeari eragiten dion edozein arlotan.
- Eskola Kontseiluaren kudeaketa parte-hartzailea eta demokratikoa sustatu.
- Beste eskola-elkarte batzuetan izandako esperientziatik abiatuta, Eskola Kontseiluaren lanerako elementu garrantzitsuak eskaini.

Udal korporazioak Udaleko Hezkuntza Saileko talde teknikoaren esku utzi du ordezkari hori.

Udaleko Hezkuntza Saila  
 Frai Zacarias Martinez kalea, 3  
 01001 Vitoria-Gasteiz  
 945 161216  
[www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza](http://www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza)